

## EKINTZAILITZA, TALENTUA ETA ENPRESEN LEHIAKORTASUNA BULTZATZEKO ZUZENDARI NAGUSIA

**Joseba Mirena Mariezkurrena Cuesta**

Portugaleten jaio zen, 1973an

### Prestakuntza akademikoa:

- 1991 - 1996: Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziaduna, enpresen arloan, Euskal Herriko Unibertsitatean. Bi espezialitate ditu: Finantziarioa eta Merkataritza Zuzendaritza.
- 1997 - 1998: Aholkularitza eta Informazio Sistemiei buruzko Masterra. Deustuko Unibertsitatea.

### Lan-esperientzia:

Accenturen hasi zen, 1998an, prozesuak hobetzeko proiektuetan finantzen eta kudeaketa kontrolaren arloko aholkulari gisa. Denborarekin, esperientzia eta ezagutza eskuratu zituen industria-enpresen arloan, eta, senior manager gisa, nazioartean erreferente diren enpresen negozio-arlo guztietan eraldaketarako proiektu konplexuak zuzentzeaz eta gauzatzeaz arduratu da.

2009an, BEAZek kontratatu zuen, Enpresen Eraldaketarako zuzendari posturako, Bizkaiko enpresa txiki eta ertainetan berrikuntza eta nazioartekotzea dinamizatu eta sustatzeko. Gero, Berrikuntzarako zuzendari gisa, enpresa eta ekintzaile berritzaileentzako produktu berriak diseinatzeaz eta martxan jartzeaz arduratu da. Azkenik, bere gain hartu du enpresaren antolaketaren zuzendaritza, eta enpresaren arlo hauetaz ardura da: finantzak, giza baliabideak, erosketak eta azpiegiturak.

2019an, Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustapen Saileko Ekintzailetzako eta Enpresa Lehiakortasuneko zuzendari nagusi izendatu zuten. Gaur egun, ekintzailetzako, talentuko eta enpresa-lehiakortasuneko zuzendari nagusi kargua betetzen du.

### Hizkuntzak:

Euskara: Maila altua, ahoz eta idatziz.

Ingelesa: Maila altua, ahoz eta idatziz.